

ESKABIDEA BETETZEKO ARGIBIDEAK

- DATU PERTSONALAK.**- Atal hau eskatzailearen identifikazio pertsonalari eta ohiko bizilekuari buruzko datuekin beteko da.

Eskaera norbere izenean formulatzen ez bada, ordezkariaren bitartez baizik, bete beharko da 1.2 LEGE ORDEZKARIAREN atala, ordezkaritza mota zehaztuz.

Kasu haietan zeinetan eskatzaileak (1.1 atala) eskaera formulatzeko beharko duen izatezko zaintzaile baten, edo bere kasuan, kuradore/defendatzaile judicial baten laguntza, bete ditzala halaber datu pertsonalen atalak (1.3/1.4 atalak)

- ESKATZEKO ARRAZOIA.**- Adierazi zer prestazio eskatzen duzun, bai eta dagozkion datuak eta datak ere.

- BESTE DATU BATZUK:**

- DATU FISKALAK** atalean, aditzera eman behar duzu zein probintzian dagoen zure egoitza fiskala (urtean, 180 egun baino gehiago); izan ere, horren arabera, desberdina izan daiteke PFEZagatik kontura egindako atxikipenen tratamendua.

Nahi baduzu, PFEZren borondatezko atxikipen-tasa eska dezakezu.

Gainerako datu fiskalei buruzko adierazpena borondatezkoa da, eta horretan oinarrituta egingo dira laneko errendimenduaren gaineko atxikipenak. Horretarako, Zerga Agentziaren 145 eredu (Datuak ordaintzaileari jakinaraztea) bete behar duzu (www.seg-social.es), eta eskabide honekin batera aurkeztu.

- HIZKUNTZA KOOFIZIALA** hautatzeak hori aitortuta duten autonomia-erkidegoetan bakarrik izango ditu ondorioak.

- ALEGAZIOAK.**- Zure prestazioa izapidetzeko garrantzitsua iruditzen zaizun eta eskabide honetan jaso gabe dagoen zerbait gehitu nahi baduzu, sar ezazu atal honetan, ahalik eta modurik laburrenean eta argienean.

- BANKUKO DATUAK.**- Kontu berezia jarri banku-kontuko laukitxoak betetzean. Kontuaren titularra beti izan behar da eskatzailea, laguntza judizialeko neurriak behar baditu ere. Datu hori okerra bada edo ez badago, ezingo da onartu litekeen prestazioa ordaindu. IBANa ere adierazi behar duzu, hau da, zure banku-kontuaren nazioarteko zenbakia. Zure bankuak edo aurrezki-kutxak bidaltzen dizkizun ordainagiri eta jakinarazpenetan aurki dezakezu. Halakorik ezean, bete itzazu Bezeroaren kontu-kodeari (BKK) dagozkion laukiak.



HAURDUNALDIKO EDO EDOSKITZE NATURALAREN ALDIKO ARRISKUA

Izapide hori Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoa bidez (<https://sede.seg-social.gob.es>) eska dezakezu, ziurtagiri digitalarekin edota CI@ve iraunkorarekin. Identifikazio elektronikorako sistemarik ez baduzu, izapidea <https://run.gob.es/tramites> helbidean egin ahal izango duzu, edo sinatutako ale bat aurkeztu ahal izango duzu posta arrunta erabiliz. Presentzialki ere egin ahal izango duzu izapidea, Gizarte Segurantzaren Arreta- eta Informazio-zentro batera joanda, 901 10 65 70 / 91 541 25 30 telefono-zenbakietan edo <https://run.gob.es/trdcita> helbidean aurretiko hitzordua eskatu ondoren.

1.- DATU PERTSONALAK

1.1	ESKATZAILEAREN											
Lehenengo abizena				Bigarren abizena				Izena				
Jaiotze-data		Gizarte Segurantzaren zenbakia		NAN-AIZ-Pasaporte			Nazionalitatea					
Ohiko bizilekua: (kalea, plaza...)							Zenbakia	Blokea	Eskailera	Solairua	Atea	
Posta-kodea		Herria				Probintzia						
Telefono mugikorra		Telefono finkoa			Helbide elektronikoa							
<input type="checkbox"/> Bere konturako langilea						<input type="checkbox"/> Besteren konturako langilea						
1.2	LEGEZKO ORDEZKARIA zeina baita:											
Tutorea <input type="checkbox"/> Erakundeen aldeko tutore <input type="checkbox"/> Lan-harremanetarako graduatua <input type="checkbox"/> Administrazio-kudeatzaile <input type="checkbox"/> Beste ahalordedun batzuk <input type="checkbox"/>												
Lehenengo abizena				Bigarren abizena				Izena				
NAN-AIZ-Pasaporte				Telefono mugikorra				Telefono finkoa				
Ohiko bizilekua: (kalea, plaza...)							Zenbakia	Blokea	Eskailera	Solairua	Atea	
Posta-kodea		Herria				Probintzia						
Helbide elektronikoa												
1.3	IZATEZKO ZAINZAILA <input type="checkbox"/> Izatezko zainzailea <input type="checkbox"/> Izatezko zainzailea judiziala <input type="checkbox"/>											
Lehenengo abizena				Bigarren abizena				Izena			NAN-AIZ-Pasaporte	
Ohiko bizilekua: (kalea, plaza...)							Zenbakia	Blokea	Eskailera	Solairua	Atea	Telefono
Posta-kodea		Herria				Probintzia			Helbide elektronikoa			
1.4	KURADORE/DEFENTSORE JUDIZIALA											
Lehenengo abizena				Bigarren abizena				Izena			NAN-AIZ-Pasaporte	
Ohiko bizilekua: (kalea, plaza...)							Zenbakia	Blokea	Eskailera	Solairua	Atea	Telefono
Posta-kodea		Herria				Probintzia			Helbide elektronikoa			

2.- ESKAERAREN ARRAZIOA HAURDUNALDIKO ARRISKUA EDOSKITZE NATURALAREN ALDIKO ARRISKUA

Kontratuaren etete-data(1)

Kontratuaren etete-data(1)

Jardueraren uzte-data(2)

Jardueraren uzte-data(2)

Erditzearen gutxi gorabeherako data

Seme/alabaren jaiotze-data

3.- BESTE DATU BATZUK**3.1 DATU FISKALAK**

Egoitza fiskala: Probintzia

PFEZren borondatezko atxikipen-tasa %

Zure egoitza fiskala FORU-LURRALDE batean badago, hau aplikatzea nahi duzu PFEZren atxikipenaren ondorioetarako:

 Taula orokorra Seme-alaba kopurua..... Pentsiodunen taula**3.2 HIZKUNTZA KOOFIZIALA** aukeratu, komunikazioa/ebazpena hizkuntza horretan jasotzeko**4. ALEGAZIOAK**

2022/07/26

8-007 eus V.8

(1) Kontratuaren etete-data Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ematen duen arriskuari buruzko ziurtagiri medikoa baino geroagokoa izango da beti, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 26. artikuluan eta haurdunaldi/edoskitze naturalaren aldiko arriskuari dagozkion prestazioak arautzen dituen 295/2009 EDaren 39. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

(2) Jardueraren uzte-data, kotizatze obligazioa betetzeko erantzukizuna duten langileei dagokienez, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ematen duen arriskuari buruzko ziurtagiri medikoa baino geroagokoa izango da beti, haurdunaldi/edoskitze naturalaren aldiko arriskuari dagozkion prestazioak arautzen dituen 295/2009 EDaren 47. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

5. BANKUKO DATUAK (Kontuaren titularra beti izan behar da eskatzailea, laguntza judizialeko neurriak behar baditu ere. Datu horren akatsak edo gabeziak prestazioaren ordainketa eragotziko luke)

IBAN kodea KONTUAN/LIBRETAN	HERRIALDEAREN KODEA	BKK			
		ENTITATEA	BULEGOA/ SUKURTSA	KONTROL DIG.	KONTU-ZENBAKIA

AITORTZEN DUT, inprimaki honetan ematen ditudan datuak egiazkoak direla.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak zure baimena eskatzen dizu edozein Administrazioak dituen datu edo dokumentuak medio elektronikoen bitartez kontsultatzeko eta eskuratzeko, legeak datu horien eskuraketa babesten ez duenean eta horiek beharrezkoak direnean zure eskaera bideratzeko eta, dagokionean, onartutako prestazioa kudeatzeko:

BAI, baimena ematen dut

EZ, ez dut baimenik ematen

OHAR GARRANTZITSUA: Baimena ematen ez baduzu, zure eskaera bideratzeko eta, dagokionean, onartutako prestazioa kudeatzeko beharrezkoak diren dokumentuak emateko 10 egun balioduneko epea izango duzu.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak zure baimena eskatzen du eskaera honetan emandako telefono mugikorra, helbide elektronikoa eta harremanetarako datuak erabiltzeko, Gizarte Segurantzaren arloko jakinarazpenak bidaltzeko.

BAI, baimena ematen dut

EZ, ez dut baimenik ematen

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

ARDURADUNA	Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala (GSIN)
HELBURUA	GSINren eskumena den Gizarte Segurantzako Sistemaren prestazioak kudeatzea
LEGEZTATZEA	Botere publikoak erabiltzea
HARTZAILEAK	Legez ezarritako edo baimenduz utzitako lagapenak eta transferentziak bakarrik egingo dira
ESKUBIDEAK	Datuak ikustea, zuzentzea eta kentzea; baita beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian azaltzen den moduan
JATORRIA	Beste administrazio eta erakunde batzuen datuak biltzen ditugu, lege ezarritako baldintzen arabera
INFORMAZIO OSAGARRIA	Informazio osagarri eta zehatza kontsulta dezakezu inprimaki honekin batera erantsitako informazio-orrian, "DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA" atalean

....., 20 (e)ko aren a

Sinadura,

Eskaera hau Internet bidez aurkeztuko baduzu, ez duzu inprimaki hau sinatu behar



ADMINISTRAZIOAK BETETZEKO

Zure espedientearen identifikazio-gakoa:

Harremanetarako funtzionarioa:

Abizenak eta izena:

NAN-AIZ-Pasaportea

④

ESKAERA

HAURDUNALDIKO ARRISKUA

EDOSKITZE NATURALAREN ALDIKO ARRISKUA

GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALAK ESKAERA JASOTZEN DEN EGUNEAN ESKATZEN DITUEN DOKUMENTUAK

- 1 NAN, pasaportea edo baliokidea, AIZ, AIT norena:
 - Eskatzailea.
 - Ordezkarria.
 - Izatezko zaintzailea.
 - Kuradore/defentsore judiziala.
- 2 Ordezkaritzaren egiaztagiria.
- 3 1.3/1.4 ataletarako ebazpen edo baimen judiziala.
- 4 Enpresa-ziurtagiria, kontingentzia profesionalengatiko kotizazio-oinarriak jasotzen dituena (lan-kontratua eten aurreko hilekoak).
- 5 Ziurtagiri medikoa, haurdunaldiko edo edoskitzaroko arriskuei buruzkoa, entitate kudeatzaileak halakorik ez daukan kasuan.
- 6 Enpresaren adierazpena, bere egoerarekin bateragarria den beste lanposturik ez dagoela aditzera ematen duena eta kontratuaren etetea jakinarazten duena, baita hori egiaztatzen duen txostena ere.
- 7 Jarduerari buruzko adierazpena, Autonomoen Erregimen Bereziko langileentzat (Nekazaritzako Norberaren Konturako Langileen Sistema Bereziko langileak salbu)
- 8 Familia-liburua, edoskitzaroko arriskurako.
- 9 Beste agiri batzuk.

Jaso dut

Sinadura

PRESTAZIOA IZAPIDETZEKO BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK

1.- Interesatuaren **nortasunaren egiaztapena** eta, hala badagokio, lege ordezkariarena, izatezko zaintzailearena/kuradorearena/lege epailearena, indarrean dagoen honako dokumentazioaren bidez:

- Espainiarrak: Nortasun Agiri Nazionala (NAN).
- Atzeritar emakumezkoak: Pasaporte edo, hala badagokio, bere herrialdean indarrean dagoen nortasun agiria eta AIZ (Atzeritarraren Identifikazio Zenbakia) Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak eskatzen duena ordainketaren edo Atzeritarraren Identifikazio Txartelaren (AIT) xedetarako.
- Legezko ordezkariaren egiaztatze agiriak, hala balegokio.
- Izatezko zaintzaile baten edo bere kasuan, kuradore/defendatzaile judizial baten laguntza premiazkoa izaten den kasu haietan, dagokion ziurtagiria.

2.- Kotizazioari buruzko agiriak, besteren konturako langileen kasuan:

- Enpresa-ziurtagiria, langilearen gertakizun profesionalengatiko kotizazio-oinarriak biltzen dituena, eta lanari buruzko beste datu batzuk.

3.- Arriskuari buruzko agiriak:

- Arriskuari buruzko ziurtagiri medikoa, entitate kudeatzaileak halakorik ez duen kasuan⁽¹⁾.
- Enpresaren adierazpena⁽²⁾, langilearen egoerarekin bateragarria den lanposturik ez dagoela aditzera ematen duena, edo, halakorik badenean, dagokion lekualdatzea egiteko ezintasun tekniko zein objektibo bat dagoela edo arrazoi justifikatuak direla medio halakorik eskatzea ezinezkoa dela aditzera ematen duena. Orobat jaso behar da langileak lan-harremana eten duen eguna, zeina G SINak arriskuari buruz emandako ziurtagiri medikoa baino geroagokoa izango baita beti, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 26. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Adierazpen horrekin batera, txosten bat aurkeztu behar da, enpresaren prebentzio-zerbitzuak edo enpresari prebentzio-zerbitzua eskaintzen dion entitate espezializatuak egina, non egiaztatuko baita betetzen direla Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 26. artikuluan jasotako alderdiak.

BESTELAKO DOKUMENTAZIOA:

4.- Entitate kudeatzaileak beharrezkotzat jotzen badu, jarduerari buruzko adierazpena, Autonomoen Erregimen Bereziko langileena (Nekazaritzako Norberaren Konturako Langileen Sistema Berezikoak edo ekonomikoki mende-koak diren autonomoak salbu).

5.- Familia-liburua, edoskitze naturalaren aldiko arriskuaren kasuan bakarrik.

(1) Langileak ez du agiri hori aurkeztu beharrik izango arriskua egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak eman badu.

(2) Norbere konturako langileen kasuan, langilearen adierazpena, egindako jarduerari eta lanpostuaren baldintzei buruzkoa, eta, halaber, jarduera horri lotuta bere egoerarekin bateragarria den lanik edo funtziorik ez dagoela adierazten duena. Kooperatiba- eta lan-sozietateetako kide diren norbere konturako langileen kasuan, adierazpena sozietateko kudeatzaileak edo administratzaileak egingo du. Langilea ekonomikoki mendekoa den autonomoa baldin bada, adierazpena bezeroak egin behar du.

Etxeko langileen Erregimen Berezian dauden langileen kasuan, adierazpena familia-etxeko arduradunak egingo du.

PRESTAZIOA

HAURDUNALDIKO ETA EDOSKITZE NATURALAREN ALDIKO ARRISKUAK

GIZARTE SEGURANTZAKO INSTITUTU NAZIONALAK HAU JAKINARAZTEN DIZU:

Martxoaren 7ko 286/2003 Errege-Dekretuaren artikulua bakarrarekin bat etorritik (apirilaren 8ko BOE), hasitako prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez, 30 eguneko da, eskaera Probintzia Zuzendaritzan erregistratzen den egunetik edo, hala badagokio, eskatutako agiriak entregatzen direnetik zenbatzen hasita.

Epe hori igarota, espedientearen ebazpenaren berri dakarren jakinarazpenik jaso ezean, administrazioaren isiltasunaren bidez eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko da, eta, orduan, ebazpena eman dezaten eskatu ahal izango da; eskaera horrek aurretiazko erreklamazioaren balio bera izango du, betiere lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 71. artikuluan ezarritakoaren arabera (urriaren 11ko BOE).

Irailaren 24ko ISM/903/2020 Aginduaren arabera, Gizarte Segurantzako Administrazioaren eremuan jakinarazpen eta komunikazio elektronikoa arautzen dituen, haurdunaldiko arriskuagatik eta edoskitze naturaleko arriskuagatik ematen diren prestazioekin zerikusia duten komunikazio eta jakinarazpen guztiak elektronikoki egingo dira, eta Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoan eskura egongo da prestazioaren ebazpena; egoitza elektronikoan sartzeko ziurtagiri digitala edo CI@ve iraunkorra beharrezkoa da.

CI@ve iraunkorra lortu nahi baduzu, behar duzun informazio guztia aurkituko duzu helbide honetan: <https://clave.gob.es>.

Eskari honekin batera beharrezkoak diren dokumentuak aurkezten ez badituzu, hamar eguneko epean aurkeztu beharko dituzu, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoan aurkez ditzakezu, bertaratzeko beharrik gabe, ziurtagiri digitala edo CI@ve iraunkorra erabilia (<http://sede.seg-social.gob.es>) nahiz postaz, edo aurrez-aurre Gizarte Segurantzaren Arreta eta Informazio Gunean, aurretik ordua eskatuta.

Epe hori ez betetzeak honako ondorio hauek izango ditu:

- 1. ataleko dokumentuak ekartzen ez badituzu, eskatzailearen nortasunaren gainekoak eta, hala badagokio, lege ordezkariarena, izatezko zainzailearena/kuradorearena/lege epailearena, hala nola lege ordezkariaren egiaztapena, ulertuko dugu eskaerari uko egin diozula, urriaren 01eko 39/2015 Legearen 66. eta 68. artikuluetan aurreikusitako jarraiki. (2015-10-02ko EAO).
- 2. eta 3. ataletako agiriak aurkezten ez baditu, ulertuko da ez dituela nahikoa egiaztatu subsidioa sortzeko edo kalkulatzeko beharrezkoak diren baldintzak, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 186. artikuluan eta hurrengoetan eta martxoaren 6ko 295/2009 Errege Dekretuaren 39. eta 42. artikuluetan ezarritako jarraiki (295/2009 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Gizarte Segurantzako prestazioak, hots, amatasunagatik, aitasunagatik, haurdunaldi zein edoskitze naturalaren aldiko arriskuagatik prestazioak).
- Beste agiri batzuk ez aurkeztea: espedientea izapidetzerakoan ez dira kontuan hartuko frogatu gabeko inguruabarrak, aipaturiko 39/2015 Legearen 77. artikuluekin bat etorritik.

Aldiz, emandako epean aurkeztuz gero, haien prestazioa ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea agiri horiek jaso diren egunetik hasita zenbatuko da.

GARRANTZITSUA:

- Entitate kudeatzaileak, haurdunaldiko arriskuagatik subsidioa edo edoskitze naturalaren aldiko arriskuagatik subsidioa kudeatzen eta ordaintzen duena den aldetik, enpresari eska dakioke langileak betetako lanpostuak duen arriskuari buruzko hasierako ebaluazioa aurkezteko, baita arriskurik ez duten lanpostuen zerrenda ere, azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 16.2 eta 26.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera.
- Lan-harremana azkentzen bada edo jarduera eteten bada, Probintziako Zuzendaritza honi jakinarazi behar zaio, hori baita haurdunaldiko edo edoskitze naturalaren aldiko arriskuagatik prestazioa bertan behera uzteko arrazoietako bat, eta saihestu egin behar baitira ordainketa bidegabeak.
- PFEZaren borondatezko atxikipen mota bat aukeratu ezean, subsidioaren gaineko atxikipena egingo da ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen atxikipenetik salbuetsita dagoen urteko gutxieneko zenbatekoa gainditzen duen zenbateko metatu bat ordaintzen zaionetik aurrera, kontuan hartuta arrisku-prestazioagatik hasieratik jasotako guztia, eta urtero erregularizatuko da hori.
- Prestazioa jaso bitartean eskaera honetako datuak aldatzen badira, Zuzendaritza Probintzialari edo Institutu honen Harreman eta Argibideetarako Zentroari (CAISS), zure bizilekutik hurbilen dagoenari, jakinarazi behar diozu.

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA	<p><i>Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?</i></p> <p>Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala Padre Damián, 4 PK 28036 Madril, ESPAINIA https://sede.seg-social.gob.es</p>
DATUEN BABESAREN ORDEZKARIA	<p><i>Nola jar gaitzke harremanetan Datuen Babesaren Ordezkariekin?</i></p> <p>Gizarte Segurantzako Zerbitzu Juridikoaren Zuzendaritza Sagasta, 13 - 6ª Solairua PK 28004 Madril, ESPAINIA https://sede.seg-social.gob.es</p>
TRATAMENDUAREN HELBURUA	<p><i>Zertarako erabiltzen ditugu zure datuak?</i></p> <p>Zure datuak eskaera hau ebazteko, eta hala badagokio, aitortutako prestazioa kudeatzeko helburu nagusiarekin tratatuko dira.</p> <p>Zure harremanetarako datuak tratatzearen helburua jakinarazpenak egitea eta Gizarte Segurantzaren inguruko informazioa bidaltzea izango da.</p> <p>Emandako datu pertsonalak zure prestazioa kudeatzeko beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, edo bere onuradunenak; baita beste helburu batzuetarako ere: artxibatzea, estatistika publikorako.</p>
TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA	<p><i>Zer da zure datuen tratamendurako legitimazioa?</i></p> <p>Lege-arau batek baimendutako botere publikoen erabilera oinarrituko da datuen tratamendua (66, 71, 72 77 artikulua eta elkarkideak 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duena, aurrerantzean, TRLGSS).</p> <p>Jakinarazpenei eta Gizarte Segurantzaren inguruko informazioen bidalketari dagokionez, tratamendua baimenaren bidez legeztatuko da. Baimenik ez baduzu ematen, ezin izango duzu jaso mota honetako bidalketak, hala ere, zure eskaeren egoerari buruzko informazioa eman ahalko dizugu kanal horien bidez. Horrez gain, jakinarazten dizugu ez duzula zure helbide elektronikorik eta telefono mugikorren zenbakirik eman behar, eta ez badiguzu ematen, zure eskaera izapidetzen jarraitu ahalko duzula.</p>
LAGAPENEN EDO TRANSFERENTZIEN HARTZAILEAK	<p><i>Nori jakinaraziko dizkiogu zure datuak?</i></p> <p>Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak bere eginkizunetan lortutako datu pertsonalak erreserbatuak dira, eta legez agindutako helburuetarako bakarrik erabiliko dira. Ezin zaie hirugarrenei laga edo jakinarazi, horren helburua G.S.L.O.T.B. 77. artikuluan berariaz ezarritako kasuren bat bada, edo beste edozein lege-arautan adierazitako kasuren bat bada.</p> <p>Nazioarteko araudian oinarritutako eskaera bat bada, zure datuak zure eskaera izapidetzeko eskumena duten atzerriko erakundeei laga ahalko zaizkie.</p>
INTERESDUNEN ESKUBIDEAK	<p><i>Zein dira zure eskubideak zure datu pertsonalak ematen dizkiguzunean?</i></p> <p>Emandako datu pertsonalei dagokienez, edozein unetan eta datuen babesari buruzko araudiak ezarritako baldintzetan erabil dezakezu datu horiek ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea, edo tratatzeko baimena ken dezakezu hala eskatu den kasuetan. Hori guztia, idazki bat aurkeztuz Gizarte Segurantzaren Arreta eta Informazio Zentro batean (CAISS), edo postaz, edo Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoen bidez, Datuen Babeseko Ordezkararen aurrean. Datu horiek taula honen bigarren atalean daude.</p> <p>Jakinarazten dizugu zure eskaerari modu egokian ez diogula erantzun uste baduzu, erreklamazio bat aurkez dezakezula Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.</p>
JATORRIA	<p><i>Nola lortzen ditugu zure datu pertsonalak?</i></p> <p>Zure eskaeran emandako datuez gain, beste administrazio eta erakunde batzuetatik beste datu pertsonal batzuk biltzen ditugu, arautegia betez, administrazio-jarduera arintzeko eta errazteko. Datuetarako sarbide horiek lege-maila duten arauak babesten dituzte.</p>